



# Etorkinen kultura gertutik ezagutzeko jarduera ugari izan dira Tolosan

**NAZIOARTEKO EGUNA** ▶ Bihar izango den egunaren harira egin zituzten atzo ekitaldiak, Udalak eta Ereite eta Calcuta Ondoan elkarteek antolatuta ▶ 6



Gazteak Ametsen basoa osatzeko marrazkiak eta idatziak prestatzen, atzo Zerkausian. E. EZEIZA

**JUAN ASENSIO** ▶ SOZIALISTA

«Jende askok ditu eskuak odolez zikinduak gerraren ondorioz»

Gerra eta frankismoa «miseria» izan zela uste du; aita kartzelan izan zuen ▶ 7



J. SAIZAR



E. EZEIZA

## Plaza Cristal taldea Tolosa Kup-eko irabazlea

**TOLOSA** ▶ Atzo jokatu zuten finala Danon Txokoaren aurka, 5-1eko emaitzarekin; ondoren, bazkaria egin zuten guztiek ▶ 5

TOLOSALDEA ▶

## EHNA eginez naziotasun eskubidea aldarrikatu dute

Naziotasun Eskubidearen egunen harira, gaur ere tramitatzeko aukera ▶ 5

**ZOS**  
soinu  
ikastaroa  
Informatika musikala  
(Cubase)  
Grabaketa eta masterizazio  
profesionala.  
P.A. eta monitorrak  
Eta abar  
943 65 35 35  
[www.sointek.net](http://www.sointek.net)

## UZTURRETIK ▶ EKAIN GARMENDIA

## Pornoa ETBn



**O**rain bi urte-edo, «sexuaren industriari» eta pornoari buruzko dokumentala ikusi nuen ETBn. Eta atentzioa gehien eman zidana Gas-teizko tipo bat izan zen, zine porno zuzendaria bera, kexu baitzen bere pelikula euskeraz bikoizteko diru eske Jaurlearitzara jo eta bertan «analak

errodatzera» bidali zutelako. Ordudanik behin baino gehiagotan pentsatu dut porno zuzendari gizajoak jasotako ezetzaren arrazoi posibleetan. Ez ote dute pornografiarik kontsumituko Jaurlearitzako goi-karguek? Azpitu-luekin ikusiko dituzte bideoklubetan disimuloz hartutako deubedeak? Zoritxarrez, Jaurlearitzakoen prejuizio eta kutixi sexuarekin baino, iruditzen zait jasotako ezetzak zerikusiko gehiago daukala oso zabaldua dagoen euskerarekiko halako jarrera protekzionista batekin.

Ez dakit tradizio kristauagatik edo gure subkontziente jeltzideagatik izango ote den, edota galduko denaren beldurrez edozein arriskutatik salbu mantendu nahi dugulako, baina gure hizkuntza «garbi» mantendu nahi izatearena nahiko gauza ohikoa eta zabaldua dela iruditzen zait. Nork daki, bali-teke, batek baino gehiagok dioen moduan. Obabatik kilometro gutxira zegoen Arkadia hartan euskera hutsean hitz egiten zutelakoan jokatzeari horrela. Horrek berdin dio halere, «normalizazio» eta «utopia» ia sinonimo

zaizkigun anormalontzat hizkuntza «garbi» mantendu nahi hori erabateko astakeria dela nahiko argi daukat. Bi hitzetan esateko, lohia euskalduntzea eta euskera lohitzea eman beharreko bi pauso direla iruditzen zait, eta ostiral gauetan ETB1en pelikula pornoak emititzea begi onez ikusiko nuke. Ez normalizazio hutsagatik bakarrik, baita ETBn tipikoak diren «batukadak» kontuan izanda hainbat dialogo nola itzuliko luketen jakitea gustatuko litzaidakeelako ere; guztiok dauzkagu perbertsio arraroak.

## LEHEN ETA ORAIN ▶



PABLO FEO



## 100 urte beranduago ere, Leitzak bere nortasuna mantentzen du

**Sinadura** ▶ Duela gutxi plazaratu du Pablo Feok Leitzako atariaren egutegia. Bada, informazioa biltzen ari zela duela urte asko eginiko argazki bat puntu berberetik ateratzeko ideia otu zitzaion. Hala, urte honetan bertan beheko irudian ikus daitekeen

argazkia egin zuen. Goran ikus daitekeena. berriaz, 1906. urtean Leitzaren ikuspegia azaltzen duen argazkia da. 100 urte igaro arren, Leitzak mantentzen du, bada, bere nortasuna. HITZA / PABLO FEO

IRITZIA ▶ ELENA EGIGUREN (TOLOSAKO UDALEKO IMMIGRAZIO TEKNIKARIA)

## Immigrazioaren fenomenoa

**M**igrazioen fenomenoa ez da gertakari berria. Historian zehar betidanik izan dira migrazioak baina gaur, inoiz baino pisu eta ondorio handiagoak dituzte mundu mailan.

Herrialdeen garapen mailaren arteko desberdintasunak gero eta handiagoak dira eta munduan dauden milioika errefuxiatuen eta erbestertuen egoerak gatazka ugari sortzen ditu. Horrez gain, komunikabideek Mendebaldeko irudi idilikoak saltzen dituzte eta zenbait gobernuren kudeaketa eskasak eragotzi egiten du jendeak bere jaioterrian duintasunez bizitzeko aukera. Bestalde, Europako biztanlegoa gero eta zaharragoa da eta, horrenbestez, eskulanaren premia du egungo eredu ekonomikoari eutsi ahal izateko. Egoera horiek guztiak immigrazioaren gorakada ekarri dute berekin azken urteotan eta bizikidetzarako oinarri sendoak ezarriko dituzten politika(k) berrien premia.

Fenomeno hau ez da berria Euskal Herrian eta ez da daude hain urrun, gure arbasoak Ameriketara joan ziren garaia edota munduko hainbat herrialdeetara gerra zela eta joan zirenak. Beraz, ezin dugu gure iragan ahaztu, ezta gure arbasoetako askok etorkinak izan zirela ukatu.

Gaur, berriz, gu gara, planetako toki aberatsenetako batean bizi garenak. Gu gara munduko baliabide guztien %90a eskura dugun populazioaren %10a (populazioaren beste %90ari, baliabideen %10a besterik ez zaiola egokitzen). Horregatik, guk ditugun aukerak izan ez dituztenak, gure atak joka datoz.

Tolosaldean bizi diren etorkinen arazo nagusiak, etxebizitza, lan duina eta bertan bizi eta lan egiteko baimena lortzea dira. Ordena hau ez da kasuala. Non bizirik ez edukitzeak ezinezkoa egiten du lan bat bilatzea eta lan eskaintzarik gabe ez dira «paperak» lortzen. Egia da tolosarrentzat ere etxebizitzarena arazoa dela baina etorkinen kasuan, hizkuntza, informazio falta edota jabeen mesfidantza, gehitzen diren oztopoak dira.

Immigrazioaren feminizazio ere kontutan hartzekoa da, hemengo emakumeok orain arte eraman izan duten etxeko lanen



eta familiaren zaintzaren zama, orain, beste emakume hauek ere, eramaten ari direlako.

Iritsi berrien integrazioa lortu nahi bada, ezinbestekoa dira lan mundura eta hezkuntza sistemara iristeko trabak gainditzea. Lan munduan, gure artean dauden etorkin gehienak, kualifikatu gabeko postuetara iristen dira soilik nahiz eta beraien lan profila bestelakoa izan. Hezkuntza arloan, erantzunak bilatu behar dira sortu berria diren beharrei aurre egiteko, hizkuntza aniztasunaren kudeaketa, baine.

Elkarbizitza on bat lortzeko, fenomenoaren perzeptzio egokia izan behar dugu eta horretarako ondo informatuta egon behar gara. (Esate baterako, Tolosaldean, etorkinen kopurua bajua da —populazioaren %2

ra ez da iristen— Espainiakin alderatuta —populazioaren %8 a—).

Honekin batera, behar berriei erantzun egokiak emango dizkien politika publiko egoki eta eraginkorrak bultzatu behar ditugu.

### Kultur trukearen aberastasuna

Aldi berean, gure kultura, ohiturak eta bizimoduak aldatzen dijoazela (gaur ez dira orain dela 50 urte bezalakoak) ukazina da eta zentzu honetan, ekarpen berriak ez ditugu mehatxu bezala sentitu behar baizik eta daukaguna aberastuko. Kulturen arteko trukaketa horretan inor ez dela galtzaile izan behar baizik eta denok aberaztu, «hemengoak» eta «hangoak».

Hau dena esanda, onartu behar dugu prozesu guztietan gertatzen ohi den bezala batzuek eta besteen arteko moldaketa horiek ez direla errazak. Hor dago gure erronka: biztanle ororen bizi proiektuak garatzeko aukera emango digun gizarte anitza eta elkarbizitza armoniko bat lortzea. Eta denok dugu zer egina: «hemengoak» eta «hangoak».

### INFORMAZIOA

«Elkarbizitza on bat lortzeko fenomenoaren perzeptzio egokia izan behar dugu; horregatik ondo informatuta egon behar dugu»

### GUTUN@K ▶

## Jakinarazten dizuegu

Udal ordezkeriak plenoan, guk aurkeztutako mozioari buruz eztabaidatzeari uko egin zioten: mozioarekin desados, beste moziorik aurkezteko denborarik ez zutelara argudiatuta. Gerontologikoa duela urte bete eta 9 hilabete itxi zuten, nahi izan duten edozein mozio aurkezteko denborarikoa, eta gehiegi:

1. Udalarri eskatzen zaio, gerontologikoen itxteak ekarritako plaza kopuruen murrizketak, itxaron zerrenda luzeak eta beste herrietako erresidentzietarako desplazamenduak sortu dituela onartzea.

2. Aldundiak onartzen duen 4,1%eko kobertura tasara iritsi ahal izateko, gurean, gutxienez 87 plaza eskainiko dituen berri bat ireki behar dela onartzea.

3. Erdigunean kokatua, kalitatekoa eta publikoa izango den erresidentzi berri baten eraikuntza, Diputazioaren laguntza eskatu dezala.

4. Egoeraren larritasuna kontutan hartuta, egungo eta etorkizuneko beharrek asetuiko dituen zentro berri horren eraikuntza, diputazioaren aurrean eman beharreko pausok ahalik eta azkarren ematea.

5. Egoitza berri hori eraikitzerako, urteak pasako direnez, modu probisionalean Euskal Herri plazako Gerontologikoa ireki dezatela. Modu honetan itxaron zerrenden arazoari irtenbidea emateko.

Abenduan egingo den plenoan Udalak hitz eman bezala, honi buruz eta gehiago hitz egingo dugu. Hantxe egongo gara guztiok berriro. Udal bandoaren bitartez jakingo dugu eguna eta ordua. Adi egon!

MANU LEUNDA ▶

PLATAFORMAREN IZENEAN

**hitza** **lagunen txokoa**

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzue EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu **902 82 02 01** telefono zenbakira

**Egin zaitez harpidedun!**

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

**Avalon**  
osagaiak  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**honekin**  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 22 44

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**

**SHANTI KIROLAK**  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**  
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

## AZOKA ▶

## Gabonetako azokaren atarian ere, salmenta ugari

Zuhaitzak, frutarbolak, baso espezieak eta Gabonetako pinuak ugari ziren

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna oso animosoa suertatu zen. Giro polita izan genuen, eta eguraldia lagun genuela, erosle eta bisitari asko izan ziren azokan. Salmentak, nahiz eta Gabonetako azoka aurrean izan, oso zabalak izan ziren, eta ekoi zeelak kontentur bukatu zuten eguna.

Aipatzekoak atzo ikusitako nobedadeak. Atari kalean dagoeneko hasi dira aurten gozatu zuten salmentakin. Frutarbolak eta baso espezieak ugari ziren atzo azokan, eta gabonetako pinuekin, zerrenda oso zabala sortu zuten.

Barazki eskaintza ere oso polita izan zen, eta dagoeneko, ikusitako produktua kalitate handikoa izan zen.

## AZOKA ▶

Prezioa	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Azalea	5,00	8,00
Erromeroa	4,00	6,00
Gerbera	12,00	-

Bertako produktua		
Errezil sagarra	0,6	8,00
Tolosako babarruna	8,00	12,00
Roblea	1,00	2,00
Erremolaxa	1,50	2,00

## KIROLA ▶

## ERREDAKZIOA

Kirola izan da protagonista egunotan eskualdeko hainbat herritan. Gaur jardura ugari izanagatik hala Asteasun nola Zizurkil izan zen zer gozatua atzokoan ere.

Asteasuarrak euren Mendi Astean murgilduta daude eta atzokoan Gipuzkoan «estreinakoz» egin den proba eraman zuten aurrera, orientazio proba, hain zuzen ere. Hotzaren beldur handirik gabe, goizean goiz bildu ziren 36 lagun inguru herriko plazan probari ekiteko prest. Irungo mendizale elkarteko orientazio saileko begirale bat aritu zen azalpenak ematen, irteera aurretik. «Irteeran mapa bana banatuko diegu parte-hartzaileei, non balizien kokapenen berri emango diegun; haiek balizak topatu behar dituzte eta guk emango diegun txarteltxoetan ziligua bota beharko dute», azaldu zuen elkarteko Uxue Frailek. Bi ibilbide antolatuta zizuten, bata haurrentzat, bestea helduentzat. «Jendea gustura amaitu du proba», zioen amaieran Frailek.

Zizurkil, berriz, Kirol Asteburua antolatuta dute. Herri kirolen saio interesgarria izan zen Intxaur pilotalekuan; batetik, sokatira emanaldia izan zen, non Izaskungo taldea izan zen garaile. Aizkolariek ere egin zuten euren saioa. Eta arratsaldean, berriz, orientazio proba egin zuten, bizilagunek bezala.

Bezperan, berriz, Zizurkilgo kirolariak omenaldi beroa jaso zuten. Omenduak Aitziber Ibarbia, Iñaki Urkola, Kandido Aizpurua, Joseba Otaegi, Modes Iraola, Aitor Castro, Ekaitz Kortajarena, Teddy Martiñez, Jon Tejedor, Lourdes Gorostegi, Igor Sasiain, Jon Ander Iriarte, Iker Hernandez eta Julen Intxausti izan ziren.

## Iparrorratzari so Zizurkil eta Asteasun

Herriko kirolariak omendu dituzte Zizurkil eta orientazio proba egin dute «estreinakoz» Asteasun



Orientazio proba egin zuten atzo goizean; irten aurretik begiraleak hainbat azalpen eman zituen. N. LATABURU

## ORIENTAZIO PROBA ▶

Hauk izan dira Asteasuko bi ibilbideen irabazleak:

**HAURREN IBILBIDEA**  
Lehenengo postua. Beñat Salaberria.  
Bigarren postua. Jon Iyarregi.  
Hirugarren postua. Oihan eta Alaia Tolosa.

**IBILBIDE LUZEA**  
Lehenengo postua. Mikel Etxarri.



Joseba Otaegi lanean, atzo, herri kirolen saioan. N. LATABURU

**NAZIOTASUN ESKUBIDEAREN EGUNA** abenduak 16 eta 17  
**ABENDUAK 17**

BARAKALDO	LEKAITZ	EIBAR
EA	MARKINA	ZALDIBIA
FLORRIO	MENDEXA	BERANGO
ERANDIO (AIZUETA)	URDUNA	BOLIBAR
GORRIBARRIAGA/LUTXANA	ZALDIBAR	OLABARRIA
GORDEXOLA	ZALLA	GALAR
KARRANTZA	ZEANURI	ARAITZ
LANESTOSA	ZORNITZA	LEITZA
LEIOA	ABALTZISKETA	ORDIZIA
ELDUAIN	AMASA	OREXA
ELGETA	AMEZKETA	
LEGORRETA	ARAMA	
TRINTXERPE	ASTEASU	
PASAI DONIBANE	ANTZUOLA	
PASAI ANTZO	ATAUN	
SORALUZE	BEIZAMA	
ALTSASU	BERASTEGI	
ZIZUR ZENDEA	UDALBILTZA	
ARRIGORRIAGA		

## TOLOSA ▶ KULTURA



## Extremadura aldeko jaki goxoak

Erredakzioa ▶ Tolosako La Jara elkarteak jardunaldi gastronomikoak antolatu ditu. Atzo, Triangulo plazan, Extremadurako produktuen erakusketa eta salmenta egin zuten. Goizean goiz ogi-mamiak eskaini zituzten. Edari eta janari ugari jarri zituzten saltzen eta jendea ere erruz gerturatu zen produktua dastatzera: ardoak, eztiak, txerriak,.... Gaur ere Triangulon izango dira. I. GARCIA

TOLOSA ▶ KIROLA



Plaza Cristales eta Danon Txokoa taldeetako jokalariek. E. EZEIZA

# Tolosa Kup, Plaza Cristal taldearentzat

Atzo jokatu zuten finala Danon Txokoa taldearen aurka, 5-1 emaitzarekin

ESTI EZEIZA

Plaza Cristalesek irabazi du aurtengo Tolosa Kup Txapelketa. Atzo goizean jokatu zuten finala Danon Txokoaren aurka, eta 5-1eko emaitzarekin garaitu zuten. Sari gisa, kopaz gain, taldekide guztiei, afari bana eta La Perla Talasoterapia zentrorako sarrerak oparitu zizkieten.

Jardunaldi bikaina egin du Tolosako taldeak, jokatu dituzten partidetatik ez baitu bat bera ere galdu. Finalerdietan berdinketa bat eta gainontzeko guztiak irabazita lortu zuten finalerako txartela. Atzokoan, gogor aritu ziren futbolariak, taldeko kideen esanetan, «hasieran kostea egin zitzaigun martxan jartzea, baina bukaeran buelta eman genion partidari». Hala ere, partida guztian zehar be-

raiek izan ziren nagusi. Lehenengo bi golak beraiek sartu zituzten. Ondoren bi eta batekoa ipini zen markagailuan, jendea urduritzen hasiz. Baina azken emaitzak adierazten duen bezala, hurrengo hiru golak ere Plaza Cristalesentzat izan ziren.

Jende ugari bildu zen atzo Usabal kiroldegiko harmailetan bi taldeak animatzeko. Hiru hilabete iraun ditu txapelketak, eta denera 39 taldek hartu dute parte. Finalaren ondoren txapelketan parte hartu zuten guztiak bazkaltzera joan ziren sagardotegira. Hala, jai giroan eman zioten bukaera Tolosa Kup-eri.

Parte-hartzaileen esanetan, orohar maila ona egon da aurtengo txapelketan: «Nabari da lehen ere futbolearen aritutakak direla jokalariek gehienak», irabazleetako baten esanetan.

EHNA ▶

## Naziotasun Eskubidearen egunetan hainbat lagunek EHNA tramitatu dute

Gaur goizean zehar zazpi herri ezberdinetan egongo dira Udalbiltzako kideak, eta Asteasun herritarren arteko herri kirolak antolatu dituzte



Ibarrako udaletxean atzo goizean zehar 16 lagunek egin zuten tramitazioa. N. URBIZU

ERREDAKZIOA

Atzo eta gaurko egunen bitartean Udalbiltzak ekimen desberdinak egin ditu. Besteen artean, Naziotasun Eskubidearen egunen deialdia, atzo eta gaurko. Horretarako, EHNA eskualdean eskura izan dute herritarrek.

EHNA egiteko, bi argazki, 15 euro eta errolda agiria behar dira. Atzo herri gehienetan sinatzeko eta EHNA egiteko aukera izan bazen ere, gaur badira hainbat herri oraindik: Abaltzisketa, Amasa, Amezketeta, Asteasu, Berastegi, Elduain eta Orexan, hain zuzen. Beste herri guztietan, atzo, «jendea pasa zen egitera», antolatzaileen hitzetan, baina «datuak bi egunak bateraturik emango ditugu».

EHNAren erabilera sustatzeko eta «honen erabilera nor-

TRAMITAZIOAK ▶

Tolosaldeko hainbat herritan EHNA tramitatzeko aukera izango da gaur, denetan ere goizean zehar. Bi edo hiru orduz egongo dira.

ABENDUAK 17, GAUR

**Abaltzisketa.** Udaletxean, 11:00etatik 13:00etara.  
**Amezketeta.** Udaletxean, 11:00etatik 13:00etara bitarte.

**Amasa-Villabona.** Amasako Kultur Etxean, 11:00etatik 14:00etara.

**Asteasu.** Udaletxean, 11:00etatik 13:00etara.  
**Berastegi.** Udaletxean, 11:00etatik 14:00etara.  
**Elduain.** Udaletxean, 11:00etatik 14:00etara.  
**Orexa.** Udaletxean, 12:00etatik 14:00etara.

malizatzen» ekimen berezi bat egingo dute heldu den asteburuan.

Asteasun ekitaldi gehiago

Asteasun EHNA tramitatzeko gain, gaur 11:00etatik 13:00etara, udaletxean beste ekintza batzuk antolatu dituzte. 12:00etan herritarren artean

herri kirolak egingo dituzte. 14:00etan, aldiz, herri bazkaria izango da Aitzondo elkartean. Bazkarira joateko izena elkartean bertan eman behar da.

EHNA egiten dutenek eta eginda dutenek Nazio Batuei zuzendutako idatzi bat sinatzeko aukera izango dute, «Euskal Herriaren naziotasuna errespetatzeko».

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan  
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

eramateko prestakua

**TRAINERA ZIABOGA**  
AGINAGA

**40€**

Eramateko tel. 943 372 808

## GIZARTEA ▶



## Denda txikien errealitatea antzerkian

**E. Ezeiza** ▶ Igarondo merkatarien elkarteak antolatu dituen ekitaldien baitan, Goringo taldearen *Joxepi dendaria* antzezlanaren izenaren ikusgai atzo Leidorren. Haur nahiz guraso, denek ongi pasa zuten emanaldiak irau zuen bitartean. Lan honetan, denda txiki baten istorioa kontatzen da, izan ere, merkatal zentruetako lehia dela eta, bere denda ixtera behartuta dago Joxepi protagonista. **E. EZEIZA**

## KULTURA ▶



## Kuba eta Brasilgo doinuez blai

**E. Ezeiza** ▶ Kuba eta Brasilgo doinuek entzun ahal izan ziren atzokoan Tolosako musika eskolan. Sanba, mambo eta bossa noba bezalako piezak jo zituzten Udala Musika Eskolako laurogei ikasle inguruk. Abesti hauek guztiak haize familiako egurrezko eta metalezko instrumentuekin interpretatu zituzten, musikari gazte nahiz helduek. Jendeak ederki txalotu zuen musikari hauek egindako lana. **E. EZEIZA**

## GIZARTEA ▶

# 13 herrialde bildu dira Zerkausian

Etorकिन Nazioarteko Egunaren harira, izan zen zer ikusia atzo Tolosan

## ESTI EZEIZA

Etorकिन Nazioarteko Eguna ospatzen da bihar, eta honen harira, hainbat ekitaldi izan ziren atzokoan. Ereite elkarte kulturantzak, Calcuta Ondoa elkarteak eta Tolosako Idaleko Inmigratio sailak antolatuta izan zen ikusia eta egina Zerkausian.

Jardueren artean *Ametsen*

*basoa* izeneko plastika tailerra aurki ahal zitekeen. «Sentsibilizazio jarduerak honek kultura ezberdinen arteko harremana bultzatzea izan zuen helburu»; hala, Tolosako neska-mutilak baso bat osatuz joan ziren. Horretarako, zuhaitzen hostoetan beraiek egindako marrazki eta idatziak ipiniz joan ziren, pixkanaka, gero eta baso handiagoa osatuz. Papertxo horien bi-



Hainbat herrialdeetako produktuak erosi eta dasta zitezkeen. **E. EZEIZA**

dez, Indiako umeentzat dituzten desioak azaldu zituzten. Gainera, hemen bildutako dirua Indiara bidaliko dute, laguntza gisa.

Hamahiru lurraldetako produktuak eta berezitasunak ikusi ahal izan ziren atzokoan. Bestalde, Ereitekoen esanetan, «horrelako egunak oso garrantzitsuak dira etorkinentzat, bai jendea ezagutzeko, bai eta herria integrazteko ere».

Arpegia margotzeko, dantza, trentzatxoek, idatzizko tailerra, bidezko merkataritzako produktuen dastaketa, antzerkia, munduko jolasak eta beste hainbat gauza egin ahal izan zituzten atzo Zerkausian hurbildutakoek. Euskal Herritik mugitu gabe, beste hainbat kultura eta ohitura ezagutzeko aukera izan zuten tolosarrek. Egunari amaiera emateko berri, munduko musiken dantza-festa izan zen gauerdira arte, Kultur Etxean.

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** Gabonak gainean ditugu. Sendian, lagunartean, elkartasunean bizitzeko mezua izan ohi dute. Nola ikusten dituzu zuk egun hauek? Gustatzen al zaizkizu? Gizarte kontsumista honen beste tresna bat al dira? Sartu eta eman zure iritzia gure webgunean.

### iragarki laburrak ▶

## SALGAI

**Autoa.** Ford Scort 1.800 TD.  
Matrikula: SS-BC. 943 65 52 88.  
**Autoa.** BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1.995 urtekoa. 153.000 kilometro. 18ko lantak eta sapaia.  
**Egoera oso onean.** 943 65 41 43.

## LANA

**Mantenu langileak.** Eskoletarako eta Udaletxeetarako. 943 44 48 66.  
**Iturgina.** Iturgin lanetarako

pertsona bat behar da.

Deitu 656 41 68 08ra.

**Abeslaria.** Erromeri eta ezkontza

taldeak abeslaria behar du.

Telefona: 658 70 11 96.

**Harreragileak.** Administrari laguntzaileak erakunde publikoetarako. 943 44 48 66.

## BESTEAK

**Txakurkumeak.** Txakurkumeak oparitzen dira. 618 25 49 71.

**TOLOSALDEKO HITZAK lan poltsa osatzeko banatzaile/buzoneatzaileak behar ditu Tolosaldean.**

LAN-BALDINTZAK :

- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 9:00etatik 13:00etara.
- Astean sei egun. Asteartetik igandera.

Interesatuak 943 30 35 33 telefonora deitu lehenbait lehen.

JUAN ASENSIO ▶ SOZIALISTA

# «Jende asko dago eskuak odolez zikinduta»

Aita eta osabak kartzelan izan zituen gerra ondoren; zaharrek «hobeto» kontatuko luketela dio, «entzundakoa ez delako biziutakoa bezala»; gerra eta frankismoa «miseria» izan zela uste du

JOXEMI SAIZAR

Alde guztien testigantza jaso nahirik, sail hau osatzeko, Gerra Zibilean ibilitako sozialisten ordezkari bat elkarrizketa nahi genuen, baina dirudie-nez Tolosaldean eta da haietako inor gelditzen bizirik —hil zen azkena Villabonako Gregorio Chueca izan omen zen— eta haien senitarteko batengana jo dugu: Juan Asensio Artola (Tolosa 1935). «Zaharrek hobeto kontatuko lukete, entzundakoa ez delako biziutakoa bezala», dio. Lan hau «dehenago» egin beharko litzatekeela dio, jende hura «bizi zenean» eta berak diona herriko «jende askok» dakiela.

## Zer gertatu zen gerra hasi zenean?

Gerra hasi eta sozialistak borrokarara atera ziren frankismoaren aurka, Batallon Rusia osatuz hemengoek. Asko zeuden orduan: Jacinto Diez, Andres Delgado, aita Julian, Eugenio eta Victor osabak...

## Hildakorik edo izan al zenuen familian?

Aitaren lagunak hil ziren frontean, Urbistondo izeneko bat. Aitak esaten zuenez, inorekin ez zen sartzen, UGTkoa izateagatik hil zuten. Jendilaje honentzat, hala deitzen diet, denak berdinak ziren. Osaba bat hil zen, Ignacio, baina ez fronte-an. Ikusmen arazo handiak zituen eta ez zen gerrara joan. Atxilotu egin zuten, kontzentrazio esparru batera eramane eta ez dakigu nola hil zen, gosez, fusilatuta ala nola. Aita eta osabak Puerto de Santa Mariako kartzelan egon ziren.

## Nola izan zen beraien gerra?

Hemendik Donostiara joan ziren, handik Arrasate, Elgeta, Bilbo... Santanderren erori zirenean El Duesoko kartzelan eduki zituzten preso. Gero Puerto de Santa Mariako kartzelara eramane zituzten denak. Han urte batzuk pasatu zituzten. Zelda bakoitzean zorriak bezala omen zeuden, leku guztietakoak nahastuta. Tolosako jendea joaten zen, beste bandokoa, eta batzuk aukeratu eta fusilatu egiten zituzten. Noiz tokatuko ote zitzairen beldurrez egoten omen ziren. Gauero pausoak eta paretik pasatzean potroak lepoan eta ondoren lasaitasuna.

**Eta zuek nola bizitu zenuen?** Hasi zenean urtea bete berria nuen eta seme bakarra nin-



JOXEMI SAIZAR

## GERRA

«Miseria eta miseria gehiago izan zen; inoiz ez zuen izan behar, ez hau eta ez beste inor ere»

## KARTZELA

«Gauero pausoak entzuten zituzten eta paretik pasatzean potroak lepoan eta ondoren lasaitasuna»

## FRANKISMOA

«Guretzat miseria izan da, urte askotan oso gaizki pasatu genuelako; inseguritate hori, etxea miatzera joaten ziren...»

tzen. Ama haurdun zegoen. Amarekin eta beste senitartekoeekin soldaduen atzetik joaten ginen, ijitoak bezala: Donostiara, gero Bilbora, unti batean Frantziara, Bartzelonan ere izan ginen... Anaia Bilbon jaio zen, baina Bartzelonan gaitxo eta ospital antzeko batean hil zen, utzikieriaz amak zioenez. Frantzia geundela, munduko gerra hasiera zihoala eta, Tolosara itzuli ginen.

## Familiako beste kideak non ibili ziren?

Denak sakabanatuta. Aitaren aldetik, arreba zaharrena, Mercedes, Frantzia gelditu zen, Bi anai-arreba txikiak, Paquita eta Jose, Errusiara eramane zituzten gerrako ume gisa. Biak itzuli ziren. Amaren aldetik ez zen inor izan gerran. Osaba bat bai, kontzentrazio eremu batean egon zen. Amonak Frantzia urte asko pasatu ondo-

ren, Espainian hil nahi zuela eta etorri egin zen.

## Nola antolatu zineten aitarik gabe?

Amaren aldeko familiarekin jarri ginen bizitzen. Ama tinbre fabrikari hasi zen lanean, tren geltokiaren atzealdean. Ni eskolan hasi nintzen. Ikaskideekin ez genuen arazo handirik, baina garai hartako apaizek, Wenceslao Mayorak adibidez, seinalatuta egiten gintuzten mezetara ez joateagatik edo beste edozein arrazoagatik.

## Noiz itzuli zen aita etxera?

1945ean edo, ez nuen ezagutzen. Etxera etorri zenean atearren atzean izkatatu nintzen. Bi osabak ere bateratsu etorriko zuten gerrako ume gisa. Askotan kartzelan sartzen zituzten edozein aitziarekin, Franco bisitatu zatorrenean adibidez. Pentsa noraino iritsi zen egoera, azkenean Franco etortzen ze-

nean beraiek boluntaio joaten zirela Goardia Zibilaren koartelera. Haiei ez zitzairen batere gustatzen. Behin, soldaduskan nengoela, aita sartu zuten kartzelan, eta ni Francori goardia egiten nengoela Aieten.

## Itzuli zenean, kalean, jendearekin arazorik izan al zuen?

Beste bandoarekin borrokatu zuten jendilajeak, leku guztietan bezala, egoera aprobetxatu zuten lapurreta eta nahi zuena egiteko. Dena lapurtu zituzten. Beldurra handia zegoen. Division Azul izeneko koadrila bat zegoen hemen, jendea probokatu eta palizak ematen zituztena. Jende askok beste aldera ihes egin zuten ez agoantzeagatik probokazio hura.

## Familiarengatik arazorik izan al zenuen lanerako?

Ez, baina soldaduskan bai. Donostian tokatu zitzaizkidan eta eguneroko etxera etortzeko auke-

ra nuen, denentzako lana zegoenez, diru pixka bat ateratzeko. Baina ez zidaten baimena eman. Anaia soldaduskara joan zenean kontuz ibiltzeko esan nion. Bere txostena ikusteko aukera izan zuen eta dena jartzen omen zuen: ama mezetara joaten zela, aita ez, anaia ere ez, bera ere joaten zela...

## Gerraren zela balantze egiten duzu? Zer izan zen zuretzat eta familiarentzat?

Miseria eta miseria gehiago. Inoiz ez zuen izan behar, ez hau eta ez beste inor ere. Behin, soldaduskan nengoela, Ifnin, Sahara inguruan Espainiak zuen lurralde bat, gerran sartzeko zorian egon ginen, koronela boluntario aurkeztu zelako eta han egon ginen akoartelata, martxak egiten... Sargentotxo eta horien patriotismoa ikusi nuen orduan, dena eman behar dela aberriagatik eta hori dena, baina zenezari adarrak ikusterakoan baja eman zuten.

## Eta frankismoa zer izan da?

Guretzat miseria izan da urte askotan oso gaizki pasatu genuelako. Inseguritate hori, etxea miatzera joaten ziren, panfletoak bilatzera. Pertsonaje bat izan genuen Tolosan: Eyara, algoazilen burua. Etxean sartzen zen goardia zibilekin erregistroa egiterakoan eta ahal zuen guztia lapurtzen zuen. Bera bezala, algoazil asko zeuden horrelakoak, soka berekoak ziren denak, Francoren goardiakoak. Postu horietan kolokatu zituzten Francoren aldekoak. Espainia osoan bezala. Lotsagabe batzuk, eskrupulurik gabe, aurrera egin zutenak. Eguneroko ogia izan zen leku guztietan.

## Gerrarik izan gabe ulertu al daiteke gaur egungo Tolosa?

Orain, demokrazia dagoela —hemen ez da hainbeste ikusten ETAren arazoagatik—, haietako inor ez da aurkezten hauteskundeetan eta oraindik haietako asko daude. PPN ere ez zaie interesatzen, jendeak nola emango dio botoa urtetan horrela egon direnei? Jende asko dago eskuak odolez zikinduta dituen, tiroak botatzera joaten zirenak.

## OHARRA ▶

Elkarrizketa osoa eta Gerra Zibilari buruzko sail honetako artikulua gure webgunean ikus ditzakezu.

**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Aduna.** Elizan, 18:00etan Loatzo musika eskolako ikasleek kontzertua emango dute.

**Asteasu.** 09:00etan Asteasuko Mendi Astearen baitan mendi irteera antolatuta dute, Asteasutik Zelatunera, PR-Gi 76 bidetik.

**Belauntza.** 11:00etan 6 eta 10 urte bitarteko haurrentzako pilota jaialdia izango da Belauntzako frontoian, bertan izango dira Alizako Pilota Eskolako haurrak ere. Haur guztiak gonbidatuta daude parte hartzera.

**Ibarra.** Gaztetxearen XIII. urteurrenaren harira, 19:00etan bideo emanaldia izango da *AHT gelditzea posible da* lelopean, Susako Aranaren eskutik (Italia).

**Tolosa.** 12:30etatik aurrera, Zezen plazan, Olasagasti eta Mindegiaeren arteko aizkora apustua.

**Tolosa.** Samaniego ikastebeak antolatuta hitzaldia izango da bihar, 18:00etan, Kultur Etxean.

**Tolosa.** Tinentek atsedendaldi taldearen inauterietako konpartsan parte hartu nahi duenak izena eman beharko du egun hauetan. bihar eta etzi artean, 18:30etik 20:30era.

**Zizurkil.** Beheko elizan 19:30ean Loatzo musika eskolako ikasleek kontzertua emango dute.

**ZINEMA**

**Tolosa.** Leidor aretoan, *Eragon* filma izango da ikusgai, 17:00etan eta 19:30etik aurrera.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.  
**Tolosa.** Olarreaga, A. Korreoe kalea, 2. 943 67 01 28.

**Bihar**  
**Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.  
**Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

**IRRATIA**

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**  
11:00-14:00. *Hitzak hegana* (errepikapena).

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Atekabeltz, gazteen topagune

**LEITZALDEA ▶** Leitzako, Aresoko eta Goizuetako gazteak ibili ziren herria girotzen eta bide batez, herriko Gaztetxearen «funtzio soziala» aldarrikatu zuten



*Kulturtu Pure* jokuan sei bikote animatu ziren jolastera. Haien kontura hainbat algara izan ziren. N. URBIZU

**NEREA URBIZU**

**A**tekabeltz Leitzako, Aresoko eta Goizuetako gazteen arteko giroaren testigu izan zen atzokoan. Hamaiketakoaren ondoren, Leitzako eta Goizuetako gazte-teen egoera eta informazioa ongi emateaz arduratu ziren bi gazte. Biek ala biek «Gaztetxea gogoz lan egiteko etxea eta herriari bizia emateko tresna» izatea nahi dutela azpimarratu zuten, eta ez jende askoren burutan dagoen «parranda eta drogarekin lotutako lokala bakarrik».

*Kulturtu Pure* lurreko jolasa giroa berotuz joan zen; leitzarrrak, Aresotik hurbildutakoak eta Goizuetakoak nahasirik, 6 bikote animatu ziren kantatzera, bertsoak botatzera, mimika eta kulturarekin lotutako probak egitera.

Bazkariaren ondoren, trikitek eta jokuek hartu zuten goizeko giroaren lekukoa. Gauean, berriz, Txapel, Zartakada eta Los Ratones Kolorados taldeen kontzertuak izan zituzten.



Eguneko ekintzekin hasi aurretik, hamaiketakoak egin zuten. N. URBIZU



Goizuetako eta Leitzako gaztekeei buruzko informazioa eman zuten. N. U.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
**Mikel Irazusta Aristi (Alegia).** Gaur 6 urte. Zorionak familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
**Amaiur Arrospe Uzkudun (Leaburu).** Gaur 3 urte. Urte askoan eta muxu asko!



**URTE ASKOAN**  
**Oihan Calahorra Murua.** Bihar 3 urte. Zorionak familiaren partetik.

**jantzi hitza ren jertseak**

HITZAren egoitzetan salgai